



Lehendakaria/Presidente

Juan Ramón Ciprián Ansoalde

Idazkari-Kidea/Vocal Secretaria

M^a Aranzazu Arana Learte

Recurso 8/2020 Errekurtsoa

Resolución 6/2021 Ebazpena

Kontratazio errekurtso berezian, REVENGA INGENIEROS, SA, INGARTEK CONSULTING, SLL, eta ASISTENCIA EN CALIDAD, MEDIO AMBIENTE Y SERVICIOS, SL erakundeek aurkeztu zutena Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren (GGLA) Batzar Orokorraren 2020ko urriaren 21eko eta 29ko erabakien aurka, aipatu erakundeek batera aurkeztutako eskaintza baztertzen dutenak eta “*Gipuzkoako Lurralde Historikoko tarifa bateratze sistemaren baitan kontrol gune integrala kudeatzeko zerbitzu kontratua*” zerbitzu kontratua INDRA SISTEMAS, SA erakundeari adjudikatzen diotenak, hurrenez hurren, Kontratazio Errekurtsoen Foru Auzitegiak, gaurko datan egindako bileran, gorago adierazitako kideen parte hartzearekin, aho batez hartu du jarraian ageri den erabakia.

En el recurso especial en materia de contratación interpuesto por REVENGA INGENIEROS, SA, INGARTEK CONSULTING, SLL, y ASISTENCIA EN CALIDAD, MEDIO AMBIENTE Y SERVICIOS, SL, contra los acuerdos de la Asamblea General de la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa (ATTG) de 21 y 29 de octubre de 2020 por los que, respectivamente, se excluye la oferta formulada conjuntamente por ellas y se adjudica a INDRA SISTEMAS, SA, el contrato de servicios de “*gestión del centro de control integral en el marco del sistema de tarificación integrado en el Territorio Histórico de Gipuzkoa*”, el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales, en sesión celebrada en el día de la fecha, con la asistencia de los miembros que arriba se expresan, ha adoptado por unanimidad el siguiente acuerdo.

AURREKARIAK

LEHENA.- 2020ko azaroaren 11n, Auzitegiak erregistro elektronikoen bitartez jaso zuen idazki bat, zeinaren bidez errekurtsogileek kontratazioaren arloko errekurtso berezia aurkeztu zuten ebazpen honen goiburuan aipatu erabakien aurka.

BIGARRENA.- Azaroaren 12an, Auzitegiak ofizioa bidali zion GGLAri, errekurtsoaren kopia erantsita eta espedientea eta dagokion txostena eskatuta.

Halaber, ofizio horretan gogorarazi zitzaion, kontuan hartuta errekurtsoa adjudikazio egintza

ANTECEDENTES DE HECHO

PRIMERO.- En fecha 11 de noviembre de 2020 tuvo entrada en el registro electrónico del Tribunal un escrito por el que las recurrentes interponen recurso especial en materia de contratación frente a los acuerdos referidos en el encabezamiento de esta resolución.

SEGUNDO.- El 12 de noviembre el Tribunal dirigió oficio a la ATTG remitiéndole copia del recurso y reclamándole el expediente y el correspondiente informe.

Le recordaba asimismo que, dado que el recurso se había interpuesto contra el acto de



baten aurka aurkeztu zela, kontratazio espedientearen izapidetzea etenda gelditzen zela 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuenak (SPKL), 53. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Espedientea Auzitegiaren erregistroan jaso zen azaroaren 17an eta txostena, azaroaren 23an.

HIRUGARRENA.- Azaroaren 24an, Auzitegiak errekurtsoa helarazi zion enpresa adjudikaziodunari, INDRA SISTEMAS SA, bost egun baliioduneko epea emanda alegazioak aurkezteko. Enpresa honek abenduaren 1ean aurkeztu zituen alegazioak.

LAUGARRENA.- Abenduaren 3ko ebazpen bidez, Auzitegi honek kontratazio prozeduraren etena kentzea erabaki zuen ondorioztatu ondoren errekurtsoa, berez, baztertzearen aurka bakarrik aurkeztu zela, izan ere, alde batetik, ez da inolako arrazoirik ematen adjudikazio egintza aurkaratzeko eta zalantzan jartzen den gauza bakarra da errekurtsogileei egindako errekerimendua ustez ezohikoa zen baja justifikatzeko eta horren ondorengo aurkeztutako justifikazioaren ebaluazioa; eta, bestetik, baztertzearen aurkako errekurtsoak aurrera joko balu eta baztertzea deuseztatuko balitz, deuseztatze hori aplikatuko litzaieke ondorengo egintzei ere, adjudikazioa barne, eta aurrera joko ez balu, errekurtsogileek ez lukete legitimaziorik izango adjudikazioa aurkaratzeko, prozeduratik kanpo geratu baitira.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Errekurtsoaren onargarritasuna

LEHENA.- Errekurtso berezi hau aurkeztu da 1.290.000 euroko balio zenbatetsia duen zerbitzu kontratu bat adjudikatzeko prozeduran errekurtsogileek aurkeztutako proposamena baztertzeko egintzaren aurka.

adjudicación, la tramitación del expediente de contratación quedaba en suspenso en virtud de lo dispuesto en el artículo 53 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público (LCSP).

El expediente tuvo entrada en el registro del Tribunal el día 17 de noviembre y el informe en fecha 23 de noviembre.

TERCERO.- El día 24 de noviembre el Tribunal dio traslado del recurso a la empresa adjudicataria, INDRA SISTEMAS SA, concediéndole un plazo de cinco días hábiles para formular alegaciones, que presentó el 1 de diciembre.

CUARTO.- Por resolución de 3 de diciembre este Tribunal acordó levantar la suspensión del procedimiento de contratación por considerar que el recurso se formula, en realidad, solo contra la exclusión, puesto que, por un lado, no se aduce motivo alguno de impugnación del acto de adjudicación y lo único que se cuestiona es el requerimiento realizado a la recurrente para justificar una baja presuntamente anormal y la posterior evaluación de la justificación presentada; y, por otro lado, porque si prosperase el recurso contra la exclusión y ésta se anulara, la nulidad se transmitiría a los actos posteriores incluida la adjudicación, y si no prosperara, las recurrentes carecerían de legitimación para impugnar la adjudicación por haber sido excluidas del procedimiento.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Admisibilidad del recurso

PRIMERO.- Este recurso especial se interpone contra el acto de exclusión de la proposición presentada por las recurrentes en el procedimiento de adjudicación de un contrato de servicios con un valor estimado de



1.290.000 euros.

Beraz, kontratazio arloko errekurtso berezia jar daiteke errekurtsoa jarri zaion egintzaren aurka, hala xedatzen baitute SPKLko 44. artikuluko 1.a) eta 2.b) atalek.

GGLA, 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, 120 artikuluan araututako partzuergoen adskripzio araubidearen arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiari adskribatuta dago, eta hala zehazten da indarrean dauden Estatutuen 3.3 artikuluan (2018ko maiatzaren 14ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala).

Ondorioz, Auzitegi honi dagokio errekurtsoaz arduratzeko gaitasuna, hala esleitzen baitio, 2.1 artikuluan, 24/2010 Foru Dekretuak, irailaren 28koak, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboa sortu eta arautzekoak.

BIGARRENA.- Errekurtsogileek legitimazioa dute errekurtsoa aurkezteko, hala xedatzen baitu, 48. artikuluan SPKLak, eta SPKLak 50.1.c) artikuluan aurreikusitako hamabost egun balioduneko epearen barruan aurkeztu da errekurtsoa.

Espedientearen edukia

HIRUGARRENA.- GGLAren 2020ko ekainaren 30eko erabaki bidez abian jarri zen Gipuzkoako Lurralde Historikoko tarifa bateratze sistemaren baitan kontrol gune integrala kudeatzeko zerbitzuaren kontratazio espedientea, eta kontratazioa arautuko zuten Administrazio Klausula Berezien Agiria (AKBA) eta Preskripzio Teknikoen Agiria (PTA) onartu ziren. Lizitazioaren iragarkia uztailaren 6an argitaratu zen GGLAren kontratatzaile profilean, Euskadiko Kontratazio Publikoa Plataforman ostatatuta dagoena, eta Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean.

Por tanto, el acto recurrido es susceptible de recurso especial en materia de contratación por así disponerlo los apartados 1.a) y 2.b) del artículo 44 LCSP.

La ATTG es un consorcio que, de acuerdo con el régimen de adscripción de los consorcios regulado en el artículo 120 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, está adscrito a la Diputación Foral de Gipuzkoa, y así lo determina el artículo 3.3 de sus vigentes Estatutos (Boletín Oficial de Gipuzkoa de 14 de mayo de 2018).

En consecuencia, la competencia para conocer del recurso corresponde a este Tribunal, al que le viene atribuida por el artículo 2.1 del Decreto Foral 24/2010, de 28 de septiembre, de creación y regulación del Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales.

SEGUNDO.- Las recurrentes están legitimadas para interponer el recurso, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 48 LCSP, y el recurso se ha interpuesto dentro del plazo de quince días hábiles previsto en el artículo 50.1.c) LCSP.

Contenido del expediente

TERCERO.- Mediante acuerdo de la ATTG de 30 de junio de 2020 se inició el expediente de contratación del servicio de gestión del centro de control integral en el marco del sistema de tarificación integrado en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, y se aprobó el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares (PCAP) y el Pliego de Prescripciones Técnicas (PPT) que regirán la contratación. El anuncio de licitación fue publicado el 6 de julio en el perfil de contratante de la ATTG alojado en la Plataforma Contratación Pública en Euskadi, y en el Diario Oficial de la Unión Europea.



Eskaintzak aurkezteko epean zehar bi lizitatzailereren proposamenak jaso ziren: INDRA SISTEMAS SA sozietatearena eta errekurtsogileek osatutako elkartearena.

LAUGARRENA.- Abuztuaren 6an egin zen A Gutun Azala irekitzeko egintza eta abuztuaren 12an C Gutun Azala irekitzekoa, azken honek dokumentazio teknikoa barne zuela, eta erabaki egin zen onartutako proposamenen inguruko txosten teknikoa eskatzea adituen batzordeari, AKBaren 19.2.7 klausulan aurreikusitakoaren arabera.

Irailaren 7an bildu zen Kontratazio Mahaia eta, jendaurreko egintzan, helburu hauetarako prestatutako txosten teknikoa irakurri zen, hain zuzen ere C Gutun Azalean aurkeztutako bi eskaintzei puntuazioa esleitzen ziena (INDRA SISTEMAS: 40,0; errekurtsogileak: 38,8). Halaber, Mahaiak proposamen ekonomikoa zuen B Gutun Azala ireki zuen.

AKBaren 22.3 klausulan xedatutakoaren arabera, baxuegitzat jo behar ziren lizitazioaren oinarritzko aurrekontuarekiko % 15etik gorako murriztapena eskaintzen zutenak, beraz, errekurtsogileek 560.692 euro (BEZa kanpo) eskaini zituztela kontuan hartuta, hau da, oinarritzko aurrekontua baino % 22,13 gutxiago, eskaintza nabarmenki baxuagotzat jo zen. Horren ondorioz, SPKLaren 149. artikulua arabera, Mahaiak erabaki zuen 10 egun naturaleko epea ematea errekurtsogileei egindako eskaintza justifikatzen zuten eta egokitzen jotzen zituzten alegazioak eta arrazoi tekniko eta ekonomikoak aurkezteko. Halaber, erabaki zen adituen batzordeari helaraziko zitzaiola errekurtsogileek, errekerimendu horren ildotik, aurkeztuko zuten dokumentazioa, eskaintza ausarkerian erori zen edo ez ondorioztatzen zuen txosten teknikoa presta zezaten.

Irailaren 8an errekerimendua bidali zitzaien

En el plazo de presentación de ofertas se recibieron proposiciones de dos licitadoras: INDRA SISTEMAS SA y la agrupación formada por las recurrentes.

CUARTO.- El 6 de agosto se llevó a cabo el acto de apertura del Sobre A y el 12 de agosto la del Sobre C relativo a la documentación técnica, y se acordó solicitar informe técnico sobre las proposiciones admitidas al comité de expertos previsto en la cláusula 19.2.7 del PCAP.

El 7 de septiembre se reunió la Mesa de Contratación y se procedió en acto público a la lectura del informe técnico elaborado al efecto, en el que se asigna la puntuación a las dos ofertas presentadas en el Sobre C (INDRA SISTEMAS 40,0 y las recurrentes 38,8). Asimismo, la Mesa procedió a la apertura del Sobre B que contenía la proposición económica.

De conformidad con lo dispuesto en la cláusula 22.3 del PCAP, debían considerarse anormalmente bajas las ofertas que fueran inferiores en más de un 15 % al presupuesto base de licitación, por lo que, habiendo ofertado las recurrentes 560.692 euros IVA excluido, es decir, un 22,13 % inferior, su oferta se consideró incurso en presunción de anomalía. En consecuencia, de conformidad con el artículo 149 LCSP, la Mesa acordó requerirles para que en el plazo de 10 días naturales alegasen y presentasen las razones técnicas y económicas que estimaran pertinentes para justificar la oferta realizada. Asimismo, acordó trasladar al comité de expertos la documentación que aportaran las recurrentes con ocasión de dicho requerimiento a efectos de emitir un informe técnico acerca de si se incurría o no en temeridad.

En fecha 8 de septiembre se remitió a las



errekurtsogileei prezioaren maila baxua modu arrazoitu eta xehatuan justifikatu eta zehazteko, ondorio horietarako egokiak ziren informazioa eta dokumentuak aurkeztuta, besteak beste, jarraian adierazitako dokumentazioa:

“- *Kostu zuzen eta zeharkako kostu guztien justifikazio koadroa.*

- *Langileen kostuen justifikazio koadroa barne hartuta jarraian adierazitako zutabeak langile bakoitzarentzat:*

- *Izen-abizenak eta kategoria profesionala.*
- *Urteko soldata gordina (xehatua, dirutan eta gauzaz).*
- *Gizarte Segurantzako kostua.*
- *Urteko kostua (soldata gordinaren + gizarte segurantzaren batura).*
- *Lanorduak hitzarmenaren arabera.*
- *Kontratuaren dedikazio orduak.*
- *Langileei dagokien gizarte segurantzako erregimena.*

- *Ekipamendu informatikoaren kostua eta ezaugarri teknikoak.*

- *Aplikazioen mantentzea.*

- *2019. urteko 190 inprimakia langile parte hartzaileentzat (Ogasun sailean erregistratua eta dagokion kodifikazioarekin).*

- *Hileko RNT (TC2) inprimakia 2020. urte osorako (bere kodifikazioarekin).*

- *Langile parte hartzaileei aplikagarriak zaizkien hitzarmen kolektiboak.*

- *Ogasun eta Gizarte Segurantzaren betebeharrak egunean izatearen ziurtagiriak 3 enpresentzat.*

- *Azpikontratazioari buruzko araudia eta ingurumen, gizarte edo lan arloko obligazio aplikagarriak betetzearen justifikazioa.”*

recurrentes el requerimiento para que justificaran y desglosaran razonada y detalladamente el bajo nivel del precio, mediante la presentación de aquella información y documentos que resultaran pertinentes a estos efectos, entre ellos la información que a continuación se detalla:

“- *Cuadro justificativo de todos los costes directos e indirectos.*

- *Cuadro justificativo de los costes de personal incluyendo las siguientes columnas por cada trabajador/a:*

- *Nombre y apellidos y categoría profesional.*
- *Sueldo bruto anual (desglosado en económico y en especie).*
- *Coste seguridad social.*
- *Coste anual (sumatorio de sueldo bruto + seguridad social).*
- *Horas convenio.*
- *Horas dedicación al contrato.*
- *Régimen seguridad social al cual están adscritos los trabajadores.*

- *Coste del equipamiento informático con sus características técnicas.*

- *Mantenimiento aplicaciones.*

- *Modelo 190 del año 2019 de los trabajadores participantes (registrado en Hacienda y con su codificación correspondiente).*

- *Modelo RNT (TC2) mensual de todo el año 2020 (con su codificación).*

- *Convenios colectivos aplicables a los trabajadores participantes.*

- *Certificados de estar al corriente con Hacienda y con la Seguridad Social de las 3 empresas.*

- *Cumplimiento de la normativa sobre subcontratación así como de las obligaciones aplicables en materia medioambiental, social o laboral.”*



BOSGARRENA.- Irailaren 17an, errekurtsogileek erantzun idazkia aurkeztu zuten, non adierazi zuten ezin zituztela helarazi, eskatutako informazioaren artean, zerbitzua egikarrituko luketen langileen izen eta abizenak, langile parte hartzaileen 2019. urteko 190 inprimakia eta 2020 urte osoko hileko RNT (TC2) inprimaki guztiak, sistema administrazioko lanpostuetarako (% 100eko dedikazioa), 3 kudeaketa operadorearentzat (% 100eko dedikazioa), aplikazioak mantentzeko garatzailearentzat (% 60ko dedikazioa) eta web garatzailearentzat (% 25eko dedikazioa). Halaber, idazkian azaldu zuten lanpostu horiek dagozkien hitzarmenen arabera kontratatuko zirela, kostuen justifikazioan azaldutako moduan, proiektuaren kontratua sinatu ondoren. Dokumentazio hau ez aurkeztea justifikatu zuten AKBaren 25.2 klausularen ildotik 21.6 klausulari buruz egindako galderei GGLAk emandako erantzunean, hau da, ez zela beharrezkoa giza baliabide eta baliabide materialen eskuragarritasuna egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztea, pertsona juridikoen ez zutela prestazioa egikarrituko zuten langileen izenak eta kualifikazio profesionala adierazteko beharrik, eta ez zela beharrezkoa baliabide atxikipen konpromisoari buruzko II.2 Eranskina aurkeztea.

Idazkian azaldu zuten ere elkarteak proiektuaren egikaritze zuzena bermatzen zuela eskaintzan aurkeztutako kalitate maileri esker eta INGARTEK eta REVENGA sozietateek Donostian bulegoak izanda, eskaintzan kontuan hartutako langileen garraio kostuak murrizten zirela GGLAren egin beharreko bileretarako. Ondoren, honakoa aurkeztu zuten eskaintzako kostuen justifikazio moduan:

1. 2021erako aurreikusitako zerbitzu orduen kalkulua, non adierazten den sistema administratzailearentzat bakarrik eskatzen dela oporraldiak estaltzea, beraz, langileen kostuetan % 14,3 gehigarria sartu da lanpostuari dagozkion hitzarmen orduekin alderatuta.

QUINTO.- En fecha 17 de septiembre las recurrentes presentaron el escrito de respuesta, en el que indican que no pueden aportar, de entre la información requerida, la identificación con nombre y apellidos del personal que ejecutaría el servicio, el modelo 190 del año 2019 de los trabajadores participantes ni el modelo RNT (TC2) mensual de todo el año 2020, para los puestos de administración de sistemas (dedicación 100%), operador de gestión 3 (dedicación 100%), desarrollador mantenedor de aplicaciones (dedicación 60%) y desarrollador web (dedicación 25%). Añaden que estos puestos serán contratados bajo los convenios correspondientes tal y como se explica en la justificación de costes y una vez firmado el contrato del proyecto. La no aportación de esta documentación la justifican en la respuesta de la ATTG a las aclaraciones y preguntas realizadas respecto a la cláusula 21.6 en relación con la 25.2 PCAP, en el sentido de que no era preciso aportar la documentación a efectos de acreditar la disponibilidad de los medios materiales y humanos; que las personas jurídicas no debían aportar los nombres y la cualificación profesional del personal responsable de ejecutar la prestación; y que no se exigía la presentación del Anexo II.2 relativo al compromiso de adscripción de medios.

También indican que la agrupación asegura la buena ejecución del proyecto con los niveles de calidad presentados en la oferta y que al contar INGARTEK y REVENGA con oficinas en San Sebastián se minimizaban los costes de desplazamiento del personal considerado en la oferta para reuniones en la ATTG. A continuación, presentan como justificación de costes de su oferta lo siguiente:

1. Un cálculo de las horas de servicio previstas para el 2021 en el que se indica que el único puesto para el que se solicita cubrir las vacaciones es el de administrador de sistemas, por lo que en los costes de personal se ha incluido un 14,3% adicional respecto de las horas convenio de su puesto.



2. Emandako zerbitzuek ahalbidetzen duten aurreztearen justifikazioa, non adierazten den eskainitako hainbat garapen elkartek aprobetxatu egingo dituela produktu propio gisa etorkizuneko proiektuetan, beraz, sistema haiek prestatzeko kudeaketa operadorearen dedikazioa aurrezkitzat jo da, elkartearen inbertsio moduan ulertu baita. Proiektua mantentzeko atalean aurrezki gisa aurkeztu zuten ere REVENGA INGENIEROS, SA sozietateak 27 milioi eurotik gorako proiektuetarako urteko negozio bolumena izatea eta ezbehar eta mantentze lanetarako 24x7 zerbitzu bat izatea, zerbitzu hori enpresa egituraren barne eskaintzen baita proiektu guztietan, hartara sinergiak osatu eta proiektuaren mantentzean aurrezteak lortzeko aukera izanda.

3. Langileen kostuen justifikazio koadroa, bai kontratua indarrean dutenak eta baita kontratatuko direnak ere; beste kostuen koadro bat software lizentziekin, baliabide materialekin eta desplazamenduetarako dietekin; eta, azkenik, 36 lan hilabeteren kostuan laburbiltzen dituen koadro bat. Adierazi zuten ez dutela inolako mozkin industrialik kontuan hartu elkarteko kideen lehiakortasun arrazoiak direla eta. Adierazi zuten ere, modu horretan, salmenta bolumena mantentzeko helburua lortzen dutela, hartara langile propioen enplegarritasuna ziurtatuta, alde batetik, eta lehiakortasuna areagotzea ahalbidetzen duen gastu orokorren murrizketa lortuta, bestetik.

Horrez gain erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu zuten non konpromisoa hartzen zuten indarrean dauden gizarte eta lan arloko obligazioak betetzeko, eta bereziki konpainia bakoitzaren hitzarmen kolektiboak errespetatzeko konpromisoa, ingurumen arloko obligazioak betetzeaz gain.

SEIGARRENA.- Urriaren 7an, adituen batzordeak errekurtsogileek aurkeztutako

2. La justificación del ahorro que permiten los servicios prestados, donde indican que una serie de desarrollos ofertados serán aprovechados por la agrupación como un producto propio en futuros proyectos, por lo que la dedicación del operador de gestión en la elaboración de dichos sistemas se considera un ahorro, al ser considerado una inversión de la agrupación. También presentan como un ahorro en el mantenimiento del proyecto el hecho de que REVENGA INGENIEROS, SA cuente con un volumen de negocio anual en proyectos por valor superior a 27 millones de euros y un servicio de incidencias y mantenimiento 24x7, servicio que se presta como parte de la estructura de empresa en todos los proyectos, lo que les permitiría realizar sinergias y ahorros en el mantenimiento del proyecto.

3. Un cuadro justificativo de los costes de personal tanto por contrato vigente como por contratar, otro cuadro con los costes de licencias SW, medios materiales y dietas por desplazamientos, y finalmente incluyen un cuadro resumen de los costes de los 36 meses de operación y afirman que se ha considerado un beneficio industrial nulo por razones de competitividad de los miembros de la agrupación. También señalan, por un lado, que alimentan el objetivo de mantener cifra de ventas, lo cual asegura la empleabilidad de los trabajadores propios, y, por otro, que favorece la reducción de los gastos generales, potenciando la competitividad.

Presentan además una declaración responsable en la que se comprometen a respetar el cumplimiento de las obligaciones en materia de condiciones sociales y laborales vigentes, y especialmente los convenios colectivos de cada compañía, así como el cumplimiento de las obligaciones en materia medioambiental.

SEXTO.- En fecha 7 de octubre se emitió por el comité de expertos el informe de evaluación



dokumentazioaren ebaluazio txostena eman zuen eta, urriaren 13an, J&A Garrigues, S.L.P. enpresak, GGLaren kanpoko aholkulari juridikoa denak, txosten bat eman zuen non ikuspuntu juridikotik aztertzen zuen errekurtsogileek aurkeztutako ustez nabarmenki baxuagoa zen eskaintza ekonomikoaren seriotasunaren justifikazioaren balorazio teknikoa.

Adituen batzordeak, kontuan hartuta agiriak, errekurtsogileek egindako eskaintza teknikoa eta ausarkeriazko baja justifikatzeko aurkeztutako dokumentazioa, honakoa ohartarazi zuen bere txostenean: a) hitzarmen kolektiboaren alderdi jakinen ez betetzea, proposatutako langileen orduetara eta soldatei dagokienez; b) kongruentziarik eza eskaintza teknikoaren eta oporraldiak estaltzeari eta ezbeharrei arreta emateari buruz emandako argibideen artean; c) 1 kudeaketa operadorearen kostuaren omisioa dieta eta desplazamendu kostuen atalean; d) justifikaziorik eza kostu jakinetan, hala nola Segurtasun Eskema Nazionalaren (ENS) betetzean aditua den pertsonari buruzko kostuetan, errekurtsogileen elkarte osatzen duten enpresetako kalitate departamentuaren aholkularitzan, eta UX erabiltzaile esperientzian aditua den profilaren kostuan; e) kontratua behar bezala egikaritzeko beharrezkoak diren lizentzien kosturik eza eta eskaintzaren arabera beharrezkoak diren baliabide materialen kosturik eza; f) eskaintza teknikoan proposatutako berrikuntza eta tresna teknikoetara buruzko zenbait kostu barne ez hartzea; eta g) kontratuaren berme kostuak eta hari egoztekoak diren zeharkako kostuak barne ez hartzea.

Bi txostenak ikusita, urriaren 15ean bildu zen Kontratazio Mahaiak urriegitza jo zuen aurkeztutako justifikazioa eta, beraz, ondorioztatu zuen errekurtsogileek aurkeztutako eskaintza ezin zela bete ezohiko balioak edo neurritz kanpoko balioak izateagatik. Modu horretan, SPKLaren 149.

de la documentación presentada por las recurrentes y el 13 de octubre se emitió informe por J&A Garrigues, S.L.P, asesor jurídico externo de la ATTG, en el que se realiza un análisis jurídico sobre la valoración técnica de la justificación de la seriedad de la oferta económica, presuntamente anormal, presentada por las recurrentes.

El comité de expertos, a la vista de los pliegos, de la oferta técnica realizada por las recurrentes y de la documentación presentada en justificación de la baja temeraria, advirtió en su informe: a) un incumplimiento en algunos aspectos del convenio colectivo en relación a las horas y los salarios del personal propuesto; b) incongruencia entre la oferta técnica y las aclaraciones presentadas en relación con la cobertura de vacaciones y atención de incidencias; c) la omisión entre los costes de dietas y desplazamientos del coste del operador de gestión 1; d) la falta de justificación de determinados costes, como son los relativos al experto en cumplimiento del Esquema Nacional de Seguridad (ENS), a la asesoría del departamento de calidad de las empresas que conforman la agrupación, así como del coste del perfil de experto en experiencia de usuario UX; e) la ausencia de los costes de las licencias necesarias para la correcta ejecución del contrato y de los medios materiales necesarios de acuerdo con la oferta; f) la no inclusión de determinados costes respecto a novedades e instrumentos técnicos propuestos en la oferta técnica; y g) la no inclusión de los costes de garantía del contrato ni los costes indirectos imputables al mismo.

A la vista de ambos informes la Mesa de Contratación, en sesión celebrada el 15 de octubre, consideró insuficiente la justificación presentada y, por tanto, que la oferta presentada por las recurrentes no podía ser cumplida como consecuencia de la inclusión de valores anormales o desproporcionados y, de



artikuluaren xedatutakoaren arabera, Kontratazio Mahaiak erabaki zuen kontratazio organoari proposatzea, alde batetik, errekurtsogileek aurkeztutako eskaintza baztertzea eta, bestetik, kontratua INDRA SISTEMAS, SA sozietateari adjudikatzea.

2020ko urriaren 21eko Ebazpen bidez, GGLak erabaki zuen errekurtsogileak prozeduratik kanpo uztea eta, urriaren 29ko Ebazpen bidez, kontratua INDRA SISTEMAS, SA sozietateari adjudikatu zitzaion. Bi ebazpen hauen aurka jarri zen kontratazio arloko errekurtsu berezi hau, non erabaki hauek biak deuseztatzea eskatu zen.

Errekurtsogileen alegazioak

ZAZPIGARRENA.- Errekurtsogileek, doktrina moduan hartuta agiriak kontratuaren legea osatzen dutela eta lotesleak direla bai lizitazailleentzat zein kontratazio organoarentzat, uste dute, alde batetik, adituen batzordea GGLatik kanpoko eta harekin loturarik gabeko teknikari eta langileek osatuta egotearen ondorioz, aditu hauek ez dituztela behar bezala eta modu xehatua ezagutzen GGLaren barne funtzionamendua eta bitartekoak eta, beraz, aurkeztutako proposamenaren eta justifikazio txostenaren ebaluazio oker eta desegokia egin dutela; eta, bestetik, Garrigues-ek emandako txosten juridikoa ezin dela baliozkotzat jo baztertze erabakia oinarritzeko, izan ere, kasu honi aplikagarriak ez zaizkion ausarkeriazko eskaintzen baztertze kasuen inguruko iritzi eta irizpideetan oinarrituta egoteaz gain, azterketaren abiapuntua premisa oker bat da, hau da, ebaluazio txostena behar bezala egin dela, baina hori ez da egia.

Hori kontuan hartuta, errekurtsogileek ulertzen dute txostenak egin zirela agiriak zehatz-mehatz ezagutu gabe, koordinaziorik gabe, kontratazio organoari eta kontratuaren titularra den erakunde publikoko langileei informazioa

conformidad con el artículo 149 LCSP, acordó proponer al órgano de contratación, por un lado, la exclusión de la oferta presentada por las recurrentes y, por otro, la adjudicación del contrato a INDRA SISTEMAS SA.

Mediante Resolución de 21 de octubre de 2020 la ATTG acordó excluir del procedimiento a las recurrentes y por Resolución de 29 de octubre se adjudicó el contrato a INDRA SISTEMAS SA, resoluciones contra las que se interpone el presente recurso especial en materia de contratación en el que se solicita la declaración de nulidad de ambos acuerdos.

Alegaciones de las recurrentes

SÉPTIMO.- Las recurrentes, partiendo de la doctrina de que los pliegos conforman la ley del contrato y vinculan en sus propios términos tanto a los licitadores como al órgano de contratación, consideran, por un lado, que al estar formado el comité de expertos por técnicos y personal ajenos y no vinculados a la ATTG, no conocen bien y con detalle su funcionamiento interno ni los medios con que cuenta, por lo que ha realizado una evaluación equivocada y errónea de la propuesta presentada y del informe justificativo; y, por otro, que el informe jurídico emitido por Garrigues no puede ser considerado como válido para fundamentar el acuerdo de exclusión ya que, además de basarse en opiniones y criterios generales sobre supuestos en los que procede la exclusión de las ofertas incursas en temeridad que no resultan de aplicación al caso, realiza su análisis partiendo de una premisa errónea, cual es el creer que el informe de evaluación está bien elaborado, cuando no es así.

Partiendo de dicha consideración entienden que los informes se realizaron sin conocer perfectamente los pliegos, sin coordinarse o sin solicitar información o aclaraciones al órgano de contratación ni al personal de la entidad



edo argibideak eskatu gabe, eta bajaren justifikaziorako informazio gehigarrik edo argibiderik eskatu gabe. Ondorioz, jarraian adierazitako alderdietan oinarritu zuten euren errekurtoa:

- Adituen batzordeak diskrezionalitate teknikoaren marjinaren doktrina urratu duela agirietan kontratistari eskatzen ez zaizkion kostuak esleitzean, obligazioak ezartzean eta prestazioak eskatzean, hartara agintea desbideratuta edo jarduketa argi eta garbi arbitrarioa gauzatuta.

- Justifikazio errekerimenduan, adituen batzordeak gehiegizko informazio eskaera bat egin zuen agirietan xedatutakoaren aurka, izan ere, besteak beste, kontraturako proposatutako lantaldeen lan arloko eta gizarte segurantzaren arloko informazioa eskatu zen, baina, agirien arabera, ez zen eskatzen proposatutako taldea adjudikazioaren aurretik kontratatuta egotea, baizik eta, adjudikaziodun izatekotan, egokiak ziren langileak kontratatzea soldata hitzarmen aplikagarrien arabera.

- Ez da kontuan hartu errekurtsogileek egindako erantzukizunezko adierazpenaren edukia, kontratuari aplikagarriak zaizkion hitzarmen kolektiboak betetzeari buruzkoa, eta ustez neurritz kanpokoa den baja justifikatzeko izapidean ezin da eskatu bestelako alderdirik, betekizunik edo inolako kosturen egozpenik, zuzenekoak zein zeharkakoak, berariaz agirietan aurreikusitakoak ez badira.

- Ebaluazio txostenetan, bai adituen batzordeak egindakoan zein Garrigues-ek egindakoan ere, akatsak eta balorazio okerrak egin dira, modu laburbilduan jarraian azaldu direnak:

1. Adituen batzordeak eskatutako eta egotzitako kostuen artean sartu dira agirietan jasota ageri ez diren kontzeptuak eta modu okerrean ulertu da kontratistaren kontura izango direla kostu horiek, esaterako:

pública titular del contrato, y sin solicitar ampliaciones de información o aclaraciones a la justificación de la baja, y fundamentan su recurso en los siguientes motivos:

- El comité de expertos ha vulnerado la doctrina del margen de discrecionalidad técnica al imputar costes, imponer obligaciones y exigir prestaciones que en los pliegos no se exigen al contratista, habiendo incurrido en desviación de poder o en una clara actuación arbitraria.

- En el requerimiento de justificación el comité de expertos realizó una petición de información excesiva y contraria a los pliegos, ya que, entre otras cosas, se exigía información laboral y de seguridad social de los equipos de trabajo propuestos para el contrato, cuando, conforme a los pliegos, no se exigía que el equipo propuesto estuviera contratado con anterioridad a la adjudicación, sino que, de resultar adjudicataria, las personas serían contratadas bajo los convenios salariales correspondientes.

- No se ha tomado en consideración el contenido de la declaración responsable efectuada por las recurrentes en relación al cumplimiento de los convenios colectivos de aplicación al contrato, sin que se pueda exigir en el trámite de justificación de la baja presuntamente desproporcionada ninguna otra cuestión, requisito o asunción de coste alguno, directo o indirecto, que no se derive expresamente de lo previsto en los pliegos.

- En los informes de evaluación tanto del comité de expertos como de Garrigues se han cometido errores y valoraciones equivocadas que resumidamente se exponen a continuación:

1. Entre los costes exigidos e imputados por el comité de expertos se han incluido conceptos que no estaban recogidos en los pliegos y que se presume erróneamente que debería soportar a su costa el contratista, como por ejemplo:



- a) Dagoeneko GGLAren jabetzakoak diren eta enpresa adjudikaziodunarentzat erabilgarri dauden sistemen programak erabiltzetik eta mantentzetik eratorritako kostuak.
- b) Lizentzia jakinen erabilera. Hala ere, agirietan berariaz aurreikusten da kontratistak lizentzia horiek baliatzeko aukera inon ere adierazi gabe horren ondoriozko kostuak kontratistaren kontura izango direla.
- c) Adituen ebaluazio txostenaren 2.7 atalean adierazten da ez direla kontuan hartu errekurtsogileek aurkeztutako eskaintza teknikoko proposamen jakinen kostuak, baina kostu horiek, zenbait kasutan, ez dira existitzen eta, beste zenbaitetan, lizentziak dagoeneko kontuan hartu eta azaldu dira ausarkeriazko bajaren justifikazioan; adibide moduan aipatzen dira Zendesk lizentziaren kostuak, fakturak jaulkitzeko prozesuaren kostuak edo TSPLUS aplikazioaren kostuak, besteak beste.
- a) Los costes de los programas de los sistemas a operar y mantener que ya pertenecen a ATTG y que están disponibles para el uso de la empresa que resulte adjudicataria.
- b) El uso de determinadas licencias respecto de las que hay previsión expresa en los pliegos de que el contratista pueda hacer uso de ellas sin que se indique que se vaya a repercutir coste alguno al contratista.
- c) En el apartado 2.7 del informe de evaluación del comité de expertos se afirma que no se han tenido en cuenta determinados costes de las propuestas incluidas en la oferta técnica presentada por las recurrentes cuando, o son inexistentes, o las licencias ya han sido consideradas y explicadas en la justificación de la baja temeraria; cita a modo de ejemplo los relativos a la licencia Zendesk, al proceso de emisión de facturas o a la aplicación TSPLUS, entre otros.

2. Badira ere ustez kontratistaren kontura izan behar duten bestelako kostuen esleipen okerrak eta desagokiak, esaterako, proiektuaren mantentze lanetarako zerbitzariak, dagoeneko errekurtsogileek badituztenak, Donostiako bulegoarekin gertatzen den modu berean, eta, beraz, proiekturako inolako kostu gehigarririk ez dutenak; edo agirietan eskatzen ziren lan bitartekoen inguruko interpretazio okerra, izan ere, errekurtsogileen elkarteko kide diren enpresentzat lan egiten duten langile guztiek dagoeneko badituzte bitarteko horiek, eta adjudikaziodun izateko kasuan kontratatuko liratekeen lau pertsonen dagokienez, pertsona hauek euren lana egiteko beharko dituzten ekipamendua eta materialak kontuan hartu dira.

3. Hainbat gastu ondorioztatu dira kontratua

2. Existen otras imputaciones erróneas y equivocadas de supuestos costes que debía soportar el contratista, como son los servidores para el mantenimiento del proyecto, de los que ya disponen las recurrentes, al igual que ocurre con la oficina de San Sebastián, y que por lo tanto no suponen ningún gasto para el proyecto; o la apreciación errónea en relación con los medios de trabajo que se exigían en los pliegos, puesto que todo el personal que ya trabaja para las empresas de la agrupación ya cuenta con esos medios, y respecto a las cuatro personas que se proponen contratar en caso de ser adjudicatarias sí se han contemplado los costes del equipamiento y materiales que precisarán para llevar a cabo el trabajo.

3. Se han presumido una serie de gastos



egikaritzeko proposatu den eta lantokia Bilbon izango duen kudeaketa operadorearen inguruan, baina, errealitatean, pertsona horrek ez ditu sortuko proiektuari egotzi nahi zaizkion desplazamendu kostuak eta dietak.

4. Azterketa ekonomiko orokorrari dagokionez, inolako fundamenturik ez duten ondorio eta kostu esleipenak egin dira, hala nola urteko jaiegunen zenbaketaren ingurukoak eta langile bakoitzeko urteko lanorduen ingurukoak, eta baita AKBaren I. Eranskinaren edukiaren ingurukoak ere. Eranskin horretan azaltzen da kontraturako lizitazioaren oinarritzko aurrekontuaren kuantifikazioa, kontratua egikaritzeko eskatzen diren langileen kostuari dagokionez.

5. Bajaren justifikazioaren ebaluatzaileek eskatu eta kontuan hartu egin dituzte bigarren mailako gastuak, besteak beste, tabletak, ordenagailu pantailak, web kamera bozgorailudunak, etab. Hala ere, produktu eta baliabide material horiek dagoeneko baditu errekurtsogileen elkarteak eta erabat amortizatuta daude enpresetan, beraz, ez dute inolako kostu ekonomikorik.

6. Adituen batzordeak soldaten inguruan ondorioztatzen duena, hau da, ez dutela uste lantaldea osatuko duten profil profesionalak onartu egingo dutela hitzarmen kolektibo aplikagarrietan xedatutako gutxieneko soldatak kobratzea, ez da kontuan hartu behar eskaintzaren bideragarritasuna ebaluatzeko, izan ere, balio judizio partzial eta subjektiboa da hori, lantaldeko buruaren eta sistema administratzailearen soldatari buruz ondorioztatzen denarekin gertatzen den modu berean.

7. Adituen batzordearen aburuz, ez dira esleitu kontratuan eskainitako zerbitzu gehigarrien kostuak, baina kostu horiek justifikatu egin dira, izan ere, errekurtsogileek dagoeneko badute erabiltzaileen esperientziaren arloko

relativos al operador de gestión que se ha propuesto para la ejecución del contrato y cuyo centro de trabajo está en Bilbao, cuando en realidad dicha persona no generará los costes de desplazamiento y dietas que se pretenden imputar al proyecto.

4. En cuanto al análisis económico global, se han realizado presunciones e imputaciones de costes sin fundamento alguno, como son las relativas al cómputo de los días festivos anuales y horas/año por trabajador, así como las relacionadas con el contenido del Anexo I del PCAP, en el que se explica la cuantificación del presupuesto base de licitación para el contrato en relación con el coste de los trabajadores que se exigen para ejecutarlo.

5. Los evaluadores de la justificación de la baja han exigido y considerado gastos de menor entidad, tales como tablets, pantallas de PCs, cámaras web con altavoces, etc., cuando se trata de productos y medios materiales de los que ya dispone la agrupación, estando plenamente amortizados en las empresas y que tampoco suponen un coste económico.

6. La consideración que realiza el comité de expertos en relación a los salarios, en el sentido de que no creen que los perfiles profesionales del equipo de trabajo aceptarán cobrar los salarios mínimos establecidos en los convenios colectivos de aplicación, no debe ser tenida en cuenta a los efectos de la evaluación de la viabilidad de la oferta, ya que responde a un juicio de valor parcial y subjetivo, al igual que la consideración que se realiza respecto del salario del jefe del equipo y del administrador de sistemas.

7. El comité de expertos considera que no se han imputado costes por los servicios adicionales que se ofertan en el contrato, cuando son costes que están justificados puesto que se cuenta ya con la colaboración del



aditu baten laguntza, pertsona hori GGLAren beste proiektu batean parte hartzen ari baita, eta badute ere kalitate adituaren lanpostua, enpresaren kalitate politikari jarraituta enpresak, bere proiektuen egikaritze zuzenerako, bere gain hartzen duen egitura kostua baita.

8. Garrigues-ek egindako ebaluazioaren txosten juridikoaren aldetik, errekurtsogileek euren aburuz interpretazio akatsak diren horien analisisa egin dute; zehazki, aztertu egin dituzte kontratu berri baten formalizazioa atzeratu ezin izatearen baieztapena, aurreikusitako atalasearekiko desbideratze marjina gehiegizkoa eta handia delako baieztapena, eta GGLAk kontrol berezi eta gehigarriak egin ezingo dituelako baieztapena, ustez ausarkeriazko bajak dituzten kontratuak adjudikatzen direnean kontratazio publikoaren araudiak gomendatzen dituenak. Adierazi dute ere ezin dela ondorioztatu errekurtsogileen elkarteak gizarte, lan eta ingurumen arloko legeria urratu duenik, izan ere, elkarteak, ausarkeriazko baja justifikatzeko dokumentazioan, dagoeneko aurkeztu du ziurtagiri bat non berariazko konpromisoa hartzen duen lege horiek betetzeko. Azkenik, atal honetan hainbat azalpen ematen dituzte inolako mozkin industrialik kontuan hartu ez izanaren inguruan, proiektua egikaritzeko interesa dela eta, elkarteak osatzen duten enpresen arrazoi estrategiko eta komertzialak argudiatuta.

9. Ondoren, errekurtsogileek aitortu egiten dute adituen batzordeak azaleratutako hainbat alderdi kontuan hartu behar direla proiektuaren kostuen egitura eta zenbatespenaren ondorioetarako: a) bermearen finantza kostuak eta aldi baterako enpresa elkarteak eratzeko kostuak; b) IGARTEK eta REVENGA enpresetako langileen bosturteko eta hirurtekoetatik eratorritako soldata igoerak, errekurtsogileek azaldutakoaren arabera "BESTE BATZUK" izeneko partida ekonomikoaren baitan daudenak; c) sistema

experto en experiencia de usuario por estar participando dicha persona en otro proyecto de la ATTG, y también con el puesto de experto en calidad, ya que, como parte de la política de calidad de la empresa, es un coste de estructura que asume la empresa para la correcta ejecución de sus proyectos.

8. En lo que se refiere al informe jurídico de evaluación realizado por Garrigues, realizan las recurrentes un análisis de lo que consideran que son errores de interpretación; en concreto, respecto a la supuesta inaplazabilidad de la formalización de un nuevo contrato, a la consideración de excesivo y amplio del margen de desviación sobre el umbral previsto, y a la imposibilidad de que la ATTG pueda llevar a cabo controles especiales y adicionales que la normativa de contratación pública recomienda realizar cuando se adjudican contratos que han incurrido en bajas presuntamente temerarias. También indican que no se puede considerar el incumplimiento de las leyes sociales, laborales y ambientales ya que la agrupación, en la documentación de justificación de la baja temeraria, ya ha aportado el certificado en el que se compromete expresamente al cumplimiento de dichas leyes. Realizan finalmente en este apartado una serie de explicaciones en relación con la consideración de un beneficio industrial nulo, motivado por el interés en la ejecución del proyecto por razones de carácter estratégico y comercial para las empresas que integran la agrupación.

9. A continuación, reconocen las recurrentes que algunos de los aspectos puestos de manifiesto por el comité de expertos sí deben ser tenidos en cuenta a los efectos de la estructura y estimación de costes del proyecto: a) los costes financieros de la garantía y el coste de constitución de la UTE; b) las subidas salariales derivadas de los quinquenios y trienios del personal de IGARTEK y REVENGA, que explican que están incluidos en la partida económica denominada "OTROS"; c) el importe resultante de la



administratzailearen lanposturako egindako kalkuluan esleitu ez diren orduetatik eratorritako zenbatekoa; eta d) hitzarmen kolektiboetako soldaten aplikazio zuzena lantaldeko langileen profilen arabera. Azken alderdi honi buruz azaldu dute kostu hori “BESTE BATZUK” partidaren geldikinarekin kontura izan daitekeela eta justifikatzeko dagoen zenbatekoaren alde izango litzatekeela proiekturako zenbatetsitako galeren zenbatekoa egikaritze fasearen hiru urteetan zehar.

Amaitzeko, errekurtsogileek hitzez hitz aipatu dituzte Kontratuen inguruko Auzitegi Administratibo Zentralaren hainbat ebazpen eta Andaluziako Gobernuak Kontratuen inguruko Auzitegi Administratiboaren ebazpen bat, gai hauei buruzkoak: eskaintzen edukiei buruz argibideak eskatzeko aukera, diskrezionalitate teknikoaren marjinaren mugak, eta ustez ezohikoak diren bajeen justifikazio eta ebaluazio txostenak.

Auzitegiaren erantzuna

ZORTZIGARRENA.- Ez da zalantzan jartzen errekurtsogileen eskaintza nabarmenki baxuagoa dela. Hain zuzen ere, kontratuaren lizitazioaren oinarritzko aurrekontua 720.000 eurokoa zen (BEZa kanpo) eta errekurtsogileek 560.692 euroko eskaintza egin zuten (BEZa kanpo), beraz, AKBAren 22.3 klausularen arabera, lizitazioaren oinarritzko aurrekontuarekiko % 15etik gorako murrizketa zuten eskaintzak baxuegiztat joko zirela ezartzen zuena, eskaintza % 22,13 baxuagoa izanda, Kontratazio Mahaiak, 2020ko irailaren 7an egindako bileran, erabaki zuten zegokion justifikazio errekerimendua egitea. Ondorioz, errekurtsogileen alegazioak kontuan hartuta, gaiaren funtsa da aztertzea helburu hauetarako prozedura behar bezala jarraitu den, GGLAk eskaintzaren bideragarritasuna justifikatzeko egindako errekerimenduari erantzunda aurkeztutako dokumentazioa ebaluatzean akatsak egin diren eta, azken batean, lizitazio

diferencia en horas no imputadas en el cálculo para el puesto de administrador de sistemas, y d) la correcta aplicación de los salarios de los convenios colectivos a los perfiles de los trabajadores del equipo de trabajo, respecto de los que indican que el coste podría imputarse al remanente de la partida de “OTROS”, y que la diferencia del importe pendiente de justificar sería el importe de las pérdidas estimadas para el proyecto en los tres años de ejecución.

Para finalizar reproducen apartados de diversas resoluciones del Tribunal Administrativo Central de Recursos Contractuales y una resolución del Tribunal Administrativo de Recursos Contractuales de la Junta de Andalucía, referentes a la posibilidad de solicitar aclaraciones sobre el contenido de las ofertas, a los límites del margen de discrecionalidad técnica, y a los informes de justificación y evaluación de las bajas presuntamente anormales.

Respuesta del Tribunal

OCTAVO.- No se cuestiona el hecho de que la oferta de las recurrentes incurrió en presunción de anomalía. Efectivamente, el presupuesto base de licitación del contrato asciende a 720.000 euros (IVA excluido), las recurrentes ofertaron un precio de 560.692 euros (IVA excluido), por lo que de conformidad con la cláusula 22.3 PCAP, en la que se estableció que se considerarían como anormalmente bajas las ofertas que fueran inferiores en más de un 15 % al presupuesto base de licitación, al ser la oferta inferior en un 22,13 % la Mesa de Contratación, en sesión celebrada el 7 de septiembre 2020, acordó realizar el correspondiente requerimiento de justificación. Por tanto, a la vista de las alegaciones de las recurrentes, el fondo del asunto radica en analizar si se ha seguido el procedimiento establecido al efecto, si se ha incurrido en error en la evaluación de la documentación aportada en respuesta al requerimiento de la ATTG para



prozeduratik baztertzea justifikatuta dagoen.

Eskaintza ausarkeriazko bajatzat jotzeko SPKLaren 149. artikulua hartu behar da abiapuntutzat, honakoa xedatzen duena:

“1. Kontratazio organoak uste baldin badu eskaintza bat eginezina dela nabarmenki baxua izateko moduan formulatuta dagoelako, artikulua honetan ezarritako prozedura izapidetu ondoren soilik utzi ahalko du lizitazio prozeduratik kanpo.

2.....

3.....

4. Kontratazio mahaiak edo, bestela, kontratazio organoak, ustez anormala den eskaintza bat edo batzuk identifikatu dituenan, errekerimendua egingo dio hura aurkeztu duen lizitatuazileari edo haiek aurkeztu dituzten lizitatuazileei, eta nahikoa den epe bat emango die prezioen edo kostuen maila baxua edo eskaintzaren anormaltasuna definitu duen beste edozein parametro arazoiz eta xehetasunez justifikatu eta xehaka dezaten, horretarako beharrezkoak diren informazioa eta dokumentuak aurkeztuz.

Kontratazio mahaiak edo bestela kontratazio organoak lizitatuazileari zuzentzen dion informazio eskaria argitasunez formulatu beharko da, halako moduz non horrek modua edukiko baitu eskaintzaren bideragarritasuna guztiz eta egoki justifikatzeko.

Zehazki, kontratazio mahaiak edo, bestela, kontratazio organoak justifikazioa eskatu ahalko die lizitatuazile horiei prezioaren edo kostuen maila baxua ekar dezaketen eskaintzaren baldintzei buruz eta, bereziki, honako balio hauei dagokienez:

a) Fabrikazio prozedurak, emandako zerbitzuek edo eraikuntza metodoak ekar dezaketen aurrezkia.

b) Lizitatuazileak produktuak eta zerbitzuak emateko edo obrak egiteko hartutako irtenbide teknikoak eta bere alde dituen ohiz kanpoko baldintzak.

justificar la viabilidad de la oferta, y, en consecuencia, si está justificada la exclusión del procedimiento de licitación.

Para la apreciación de la oferta como incurso en baja temeraria hay que partir del artículo 149 LCSP, que dispone lo siguiente:

“1. En los casos en que el órgano de contratación presuma que una oferta resulta inviable por haber sido formulada en términos que la hacen anormalmente baja, solo podrá excluirla del procedimiento de licitación previa tramitación del procedimiento que establece este artículo.

2.....

3.....

